



## **Californiako Orange County konderriko sei enpresek Euskadin inbertitzeko asmoa erakutsi dute**

- Gipuzkoako Bazkundean izan den bileran energia eolikoa eta auto elektrikoa izan dira gai nagusiak.
- Hiru egunetan Euskal Autonomi Erkidegoko hainbat enpresa bisitatu dituzte, osasun arlokoak gehienak.

---

**Donostia, 2013ko maiatzaren 29a.** Gipuzkoako Bazkundeak Californiako Orange County konderriko sei enpresa hartu ditu, herrialdeko sektore estrategikoetan inbertitu nahi duten sei enpresa.

Gipuzkoako Bazkundean izan den bileran Euskal Autonomi Erkidegoko eta Gipuzkoako gaitasunen, industriaren eta sektoreen inguruko informazioa jaso dute. Nahiz eta bileraren gai nagusiak energia eolikoa eta auto elektrikoa izan diren, herrialdeko bi sektore estrategiko. Gai hauek jorratu ahal izateko Hiriko eta Energy Supply Chaineko arduradunak izan dira bertan.

Californiako sei enpresa hauek Julian Egizabal enpresariaren bitartez etorri dira Euskadira, gure errealitatea eta gure enpresak ezagutzeko asmoz. Hiru egunetan zehar herrialdeko hainbat enpresa bisitatu dituzte, hauen artean Mondragon, Onkologikoa, Inbiomed, Cita-Alzheimer eta Tecnalia-Azti gehinak osasun arloarekin zer ikusia dutenak. Orange Countyko enpresek jakinmin berezia adierazi dute osasunaren sektorearengatik.

*Informazio gehiago nahi izanez gero:*

**Irene Bengoetxea**

[ibengoetxea@camaragipuzkoa.com](mailto:ibengoetxea@camaragipuzkoa.com)

Tfno: 943 000 310 / Móvil: 688884347